

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Tolosako HAPOko «11. San Esteban» hirigintza-esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa jendaurrean jartzea.

Tolosako Alkateak, bi mila eta hogeita lauko urriaren hamazazpiko 2024/2359 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman zuen:

Lehena. Tolosako HAPOko «11. San Esteban» hirigintza-esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa jendaurrean jartzeko erabakia hartzea.

Bigarrena. Adierazitako dokumentu horiek jendaurrean jartzea bi hilabetez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko, eta honen berri ematea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN zein Berria, Diario Vasco eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Halaber, interesdunen eskura jartzea Tolosako Udaleko iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan.

Hirugarrena. Aurrerapena udal mugakideetara (hau da, Alkiza, Hernialde, Anoeta, Irura, Billabona, Ibarra, Leaburu, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Legorreta eta Albiztur) bidaltzea, ezagutu dezaten eta proposatutako antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

Laugarrena. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera aurkeztea Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta planaren aurrerapen-dokumentuarekin batera.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Tolosa, 2024ko urriaren 21a.—Kristina Pelaez Errazkin, zinegotzi delegatua. (7683)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Someter a información pública el documento de avance y el documento inicial estratégico de la modificación puntual del ámbito urbanístico «11. San Esteban» del PGOU de Tolosa.

La Alcaldía de Tolosa, mediante Decreto 2024/2359, de diecisiete de octubre, dictó la siguiente resolución:

Primero. Adoptar la decisión de someter a información pública el documento de avance y el documento inicial estratégico de la modificación puntual del ámbito urbanístico «11. San Esteban» del PGOU de Tolosa.

Segundo. Someter al trámite de información pública durante un plazo de dos meses los citados documentos para la presentación de sugerencias y alternativas, así como informar de ello tanto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa como en los diarios Berria, Diario Vasco y Tolosaldeko Ataria. Asimismo, ponerlo a disposición de los interesados en el tablón de anuncios y sede electrónica del Ayuntamiento de Tolosa.

Tercero. Remitir el avance a los Ayuntamientos colindantes (Alkiza, Hernialde, Anoeta, Irura, Billabona, Ibarra, Leaburu, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Legorreta y Albiztur) para su conocimiento e informe sobre los aspectos básicos de la ordenación propuesta.

Cuarto. Presentar al órgano ambiental del Gobierno Vasco la solicitud para la elaboración del documento de alcance de la evaluación ambiental estratégica, junto con el documento inicial estratégico y el documento de avance del plan.

El presente Acuerdo no agota la vía administrativa por tratarse de un acto de trámite contra el que no cabe recurso alguno, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Tolosa, a 21 de octubre de 2024.—La concejala delegada, Kristina Pelaez Errazkin. (7683)